

## BURUATA PIRATA.

Buruata pirata umore onez zegoen . Azkenean atertu egin zuen! Hiru hile ... (Eta egun batzuk gehiago!) euritan eman ondoren eguzkia atera zuen . Eskifaiak jantziak erantzi eta itsasontzi piratako kabletan zabaldu zituen. Esekitoki handia ematen zuen barkuak!

Buruata kapitaina alai ibiltzen zen bere itsasontzian. Munduko altxor handiena lortu izan zuen. Borroka bortitz baten ondoren Ameriketatik Urdin Handia goletak zekarren guztia lapurtu zuen. Urrezko eta zilarrezko edalontziak, platerak, mahai tresnak, apaingarririk ederrenak, eskumuturrekoak, lepokoak, belarritakoak, harri bitxiak, ...

Pirata kapitaina pozik zegoen. Uharte baten parean altxor handia batelean sartzea agindu zuen. Oinuts, batelean hankak sartzerakoan busti egin zituen.

-Arraio – pola! Berriro ere nire oinek arrain ustelaren usaina botako dute!- marmarka egin zuen.

Egun arrunt batean eskifaia erdia botako zuen brankatik behera haserrealdian, baina Buruata piratak umore hobea zuen inoiz baino.

-Azkenean gure eguna iritsi da, Nepturno lagun. Ikusi, ikusi gure aurrean uharte galdua!- garrasi egin zuen Buruata handiak.

-Nire kapitaina, - esan zuen marinel gazte batek ahots fina eta lotsatiarekin – nire uste apalean hau ez da bilatzen ari ginen uharte galdua.

-Eta nola dakizu zuk hori?- ulu egin zuen Buruatak.

-Hitzak berak azaltzen du. Gal-du-a. Guk aurkitu dugun irla da, beraz ez dago galduta - Argudiatu zuen marinelak.

Buruata une batez zalantzan egon zen. Itsas- mutilak egia esaten ari zela pentsatu zuen. Irla batek irla galdua izateari uzten dio aurkitzen dugun momentuan bertan. Uhartea hobe ikusteko begiko adabakia altxatu zuen kapitain piratak. Pentsakor gira -biraka ibiltzen hasi zen; marmarka, bere kizkia euliak uxatzen arituko balitz bezala mugitzen zuen. Eta azkenean, eskifaia osoa bere hitzen zain zegoela baxu-baxu esan zuen :

-Ez dio axola. Hala eta guztiz irlan bertan lurperatuko dugu altxorra.

Eta eskifaiari begira gehitu zuen:

-Irlan altxorra lurperatzea eta lurperatu ondoren irla galtzea agintzen dizuet!

-Baina kapitain jauna ... Uhartea galtzen badugu, altxorra ere galduko dugu.- Esan zuen lotsaturik itsas – mutilak.

-Orduan irlan altxorra lurperatzea, eta lurperatu ondoren irla galtzea, eta irla galdu ondoren aurkitzea agintzen dizuet.

-Baina Buruata kapitaina, aurkitzen badugu ez da inolaz ere irla galdu bat izango - argudiatu zuen berriro marinel gazteak.

-Horrela bada ..., altxorra lurperatzea eta lurperatu ondoren irla galtzea eta altxorra ere galtzea agintzen dizuet! - Garrasi egin zuen Buruata piratak.

Horregatik, itsaso zabalean, galdutako altxor bat gordetzen duen uharte galdu bat dago ... Inoiz inork ez du aurkitu ez bata, ez bestea! Noizbait Atlantikora itsasoratzen bazara erne ibili eta

zeruertza ondo behatu. Baliteke uharte galdua aurkitzen duen laguna, eta piraten altxor handiena eta zoragarriena lur azpitik ateratzen duen zoriontsua zu izatea!

<https://mumablue.com/blog/cuento-de-piratas-para-leer/>

*Malapata pirata* ipuinaren egokitzapena.